

PLAZA ECOFRIENDLY

7.- Funtsezko baliabideak

Kostuak murriztea:

- Argia aurrezteko, kontsumo baxuko bonbillak jarri gure postuetan.
- Gure lursailak ureztatzeko, ura. Kasu honetan, euriko ura erabili dezakegu, hori aprobetxatzeko.
- Poltsen erabilpen eza. Norberak bere telazko poltsa ekarri beharko du. Hasierako promozioan telazko poltsak oparituko dira 20€tik gorako erosketetan.



Hobetzeko aukera:

- Gure ekintza ondo baldin badao, modernizatu egin dezakegu, eta beste hirietan plaza ecofriendly-ak jartzeko proiektuak garatu eta saldu. Proiektuaren hedapena da gure helburu nagusietako bat.

Iraunkortasuna:

- Gure jardueran funtsezko baliabide batzuk daude. Hauek ezinbestez erabili behar ditugu, proiektuaren euskarria direlako. Multzo honen barne, jarduera gauzatuko dugun txokoa eta bertan egongo diren kontainerrak (dendak) daude. Horrez gain, baserritarrak egongo dira beraien produktuak saltzen, baina, denboraren poderioz, hauetako batzuk ekoizten utzi dezakete, edota beste baserritar berri batzuk gure proiektuan parte hartzea nahi dezakete. Eskaria balego, produktu berriak ere eskainiko lirateke.

